

Sartre eta Ezker Abertzalea

**JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,
'TXILLARDEGI'**
IDAZLEA

Oso zail gertatzen zait Jean Paul Sartre ez laburki zerbait esatea. Ezker Abertzalearen sorreran beronen eragina handia izan zelako.

1960-1975 urteetan, frankismoaren amaieran jasandako garai kritiko eta zailetan, Sartreren ikusmoldea erabakiorra izan baitzen.

Sartre Mundu Gerra baino lehenago frantses letretan plazaratua, 1945an ordua arteko irakaskuntza-lanari agur esan, eta idazle gisa bizitzea erabaki zuen. Eta *Les Temps Modernes* aldizkaria sortu zuen. Honek eragin handia izan zuen Europako «intelligentzia» delakoan.

Sartre filosofoa eta idazlea besterentzat utzirik, hala ere, nik hemen Sartre sozialista ezkertiarra gogoraziko dut.

Guztiz gailen eta erasogaitz agertzen zen marxismo ofizialari buruz erabat kritikoa izanik, *Critique de la pensée dialectique* liburu luze sakona idatzi zuen. Beronetan, subjektuaren hutsunea salatzen zuen; bai pertsonari buruz, bai herriei buruzko teoriarri.

Sozialismoari bai, zioen Sartrek; baina bi maila horietako suetoak ardatz jarri.

Antikolonialista porrokatua (baita Frantzia inplikaturaz zegoen kasoeetan ere: Indotxina, Arjelia), kolonietako herrien

defendatzaile sutsu bihurtu zen. Sartre paristarra zen; eta, hain zuzen, Saint-Germain des Pres auzoan bizi zen. Hantxe jasan zituen plastikada batzuk, «traidoretzat» eskuindarrek salatutik.

1963an, britaindar Bertrand Russellean eskuz esku, *Russell Tribunal*a sortu zuen; bereziki Viet-Nam-go sarraskiak epaitu eta gaitzesteko.

1964an Nobel Saria eman zioten Stockholm-en; baina ez zuen onartu. Eta esaldi famatu hura barreiatu zuen: «*Je ne veux pas être récupéré objectivement par le Monde Occidental*».

PCkoa izan ez arren (Russell, anarko-sindikalista, ez zen inoiz komunista izan), eta Ekialdeko Estatu Sozialisten akatsak ezagutu arren, esperantza Ekialdean zeukala errepikatu zuen garbiki.

1968an, Sovietar Blokeak Txekoslovakia okupatzean, kolpe latza jasan zuen Sartrek; eta publikoki kokatu zuen Dubcek-en alde eta Mosku-ren kontra.

Baina, *Euskal Herriari* dagokionez, 1970ko Abenduan burututako Burgosko Epaiketakoan hartutako jarrera garbi eta ausarditsua, garrantzitsua izan zen. Zinez historikoa. Eta aipamen berezia merezi du.

Euskal Ezkerrean sekulako zalantza giroa zegoelarik, eta sozial-inperialismo espainolaren eraginak bere gailurra iritsi zuzenean, Sartre garbi mintzatu zen.

Gisele Halimi arjeliar abokatuak *Le procès de Burgos* liburu ospetsua 1971an



BERRIA

kaleratu zuenean; 16 ETAKide epaituen gorabeherak kronika ezin biziagoan dena zehazki azalduz. Eta Jean Paul Sartrek Hitzaurrea erantsi zion: 23 orrialde.

Modan zegoen ultra-klasismo eta sasimarxismoaren aurka, kontrakoa aldarrikatu zuen Sartrek. Alegia, Burgosko Epaiketak gauza bat erakutsi ziola munduari: funtsean hemen euskal nazio arazoa dagoela; baina eskuin guztiak, eta sozialistek, eta komunistek, Estatuaren batasunari eutsi beharrik itsuturik, ez dutela ikusi nahi.

ETAKo militanteak, idatzi zuen Sartrek, ezkertarrak zalantzarik gabe, abertzaleak ere badira; eta Espainiaren kontra egiten dute borroka.

Unibersalkeria burges abstraktoaren aurka, euskal herriaren unibersaltasun

konkrertu eta berezia badagoela erakusten dute.

Eta, batera, Espainiako PCA eta Euskal Herriko PNVA salatu zituen. Biok maingu. PCEak euskal nazio-izaria ukatzen duela; eta PNVA Euskal Herriko klase-izaria ikusten ez duelako.

Independentziaren eta Sozialismoaren aldeko borroka osoki batuko zituen mugimenduaren beharra azpimarratu zuen. Eta ETAn aurrikusi uste izan zuen. Nahiz honen barruko zalantzen aurrean (informazio zehatza zuen Sartrek Parisen!) kezkatuta agertu.

Sartreren testuaren garrantzia erreparatu zuen ETAK. Eta *Zutik* berezi batean izkribua *euskaraz* argitaratu eta zabalzea erabaki zuen.

Eta buru zegoen Juan Jose Etxabe arrastearrak euskal itzulpena prestatzea eskatu zidan.

1967ko Apirilean utzia nuen nik ETA. Baina Martutenen 1960ko udan elkarrekin egonez geroztik, harreman ona genuen Etxabek eta biok. Eta baiezkoa eman nion. Eta *Zutik* hura prestatu (zenbakia ezin orain eman), eta kaleratu egin zen.

Gaur egun, zoritxarrez, Sartre-Beauvoir bikotearen mailakorik ez dugu. Umezurtz gaude, egia esan. Baina denbora haietako lekukotza eman dezakegu.

Bidenabar, bestetan ere egindako eskabidea berretuz: noiz izango du gure herri honek Sartre plaza edo kalerik?

• Sartre buruzko lan euskaratuak

Gutxi dira Jean Paul Sartreren lanak euskarara itzuliak. Mikel Lasak *Paretaren kontra* itzuli zuen Luis Haranburu Altuna argitaletxearekin, 1983an, eta *Nekrassov antzerki lana*, berriz, Xabier Olarrak, 1985ean. Lan hori Bederen 1 taldeak taularatu zuen. Iñaki Lasak *Existentialismoa humanismo bat da* izeneko lana 1989an itzuli zuen, Kriseiuren eskutik, eta berriki, Literatura Unibertsala sailean, *Goragalea* euskaratu du Monika Etxebarriak. Hemen Sartre protagonista dituen bi olerki hautatu ditugu. Bat Eusebio Erkiagarena, 1951eko *Egan* aldizkarian argitaratua; bestea, Gabriel Arestirena, *Oleri-n* argitaratua.

HIRUKO BASTOA: JEAN-PAUL SARTRE


Gabriel Aresti

Joane Paulo Sartre antiojoduna
Bere benturagatik ez da euskalduna
Horregatik hura ez da fededuna
Esku-zikinak ditu ta arima astuna
Hori da fortuna
Guk ez daukaguna
Gogorra beruna
Burnia biguna
Ardura haundia da ematen diguna

Zuzenbide debekatua, 'Karta Jokoa', 1961



IDAZLE ETA FILOSOFOA, Jean-Luc Godard zinemagilearekin. BERRIA



LAU dira euskarara itzultitako Jean Paul Sartreren lanak; azkena, *Goragalea*. BERRIA

'JEAN PAUL SARTRE-REN ARDI GALDUAK'

Eusebio Erkiaga, 1951

Artzai biurtua dot
ene Jean Paul Sartre
artalde ugaria dau
aker eta naste.

Et-et, et-et!

Zezentokian zezen
urde biribilla,
pozik sartuko dautsat
amudun makilla.

Nortzuk ditugu, gero,
—izate-zaleok?—
Arako Epikuro-n
txarriak, barrirok.

Soñeko merkez udan
tximino bezela
ipurdia eta abar
agiri dabela.

Prantzi-tik datorriguz
Euskalerrirako
barrenarentzat kirats,
begientzat laño.

Tamalgarrien, baña,
auxe dot benetan:
olerkariaren batzuk
ezpait-dabe eder-muin.

Eta or dabiltz galdez
samin, Beti Larri,
euren buruak noruntz
begiraka yarri.

Ai, gizaiso aundiok,
ardi-gabetuok,
illunez ta ustelez ez
al dozeu egin ok?

Arren bai arren, bizkor
utzi leze-bide,
yaso goiruntz begiok
izarren senide.

Utzi urde zikiñen
beira begiratze,
biotzak goratuaz
barrenak loratze.

Adimen-bazka arraitzat
ikus -Aitorpenak—
Agustin andiaren
ondare onenak.

Kanta olerkariok
siñismenez ekin,
olerki narrazioek
ezpait-dabe eder-muin.

Ta zerua itzuliaz
izar, begietan,
zinkuriñaz lore biz,
otoi, ezpanetan.

Agur ba, ene Sartre,
akerzai azkarra,
irri-karkaraz dozu
inpernuko garra!...
Ja-ja, ja-ja!